

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Jendaurrean jartzea uraren, zaborren eta estolderiaren 2026ko bigarren hiruhilekoko erroldak

Okondoko udalerriko ur hornikuntza, estolderia eta zabor bilketa zerbitzuen tasen 2026ko bigarren hiruhilekoko erroldak egin dira, zeinak alkatearen 2026ko uztailaren 1eko dekretu bidez onetsi baitira.

Erroldak jendaurrean egongo dira 15 egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eragindako zergadunek errolda aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izateko.

Interesdunek espedientearen udal bulegoetan (Zudubiarte kalea 1) aztertu ahal izango dute, 9:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertzearen errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, jendaurrean jarri ondorengo egunetik aurrera.

Borondatezko aldiaren ordaintzeko epea hilabetekoa izango da; hain zuzen ere, 2026ko abuztuaren 1etik irailaren 1era artekoa.

Borondatezko aldiko dirubilketa amaitzen denean, epe exekutiboa hasiko da zuzenean, ordaindu ez diren kuotetarako, eta berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatuko dira, Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren arabera, bai eta premiamendu bidearen kostuak ere, hala dagokionean.

Ordainketak banku entitateetan helbideratuta dauzkaten zergadunek ez dute inolako ku-deaketarik egin beharrik, eta bankuak 2026ko abuztuaren 7an egingo die kargua.

Ordainketak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan emango zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara), dirua Caja Rural de Navarra entitatean sar dezaten.

Okondo, 2026ko uztailaren 1a

Alkatea

JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO